



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ARRETA PERTSONALIZAUKO PLAZEA DAUKIEN PERSONA GUZTIAK DSBE-AN SARTZEKO ESKATU DABE

- Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe “gizarte-zerbitzuak emoten dituan administrazio batez sinatutako arreta pertsonalizauko plan bat garatzen daben eta plaza daben persona guztiek DSBEa jasoteko aukerea izatea”.
- Laespada diputatua batzordera etorri da “etxebakotasunaren” aurrean erakundeen arteko koordinazioaz berba egiteko, Bizkaiko Batzarrek, Bizkaiko Batzar Nagusien administrazio-egoitza martxan jarri zantetik 25 urte igaro dirala ospatzen daben egunean.

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 13an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Batzordeak aho batez onartu dau, Elkarrekin Bizkaiaaren arauz besteko proposamen bat ordeztzeko sortu dan Euzko Abertzaleen eta Euskal Sozialisten osoko zuzenketa bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumeneko egoitza-guneetan bizi diran persona guztiek Diru Sarrerak Bermatzeko Errentea (DSBE) jasotearan ganeko gogoeta bat hasi daiten.

Adostutako testuak Eusko Jaurlaritzagaz akordioak bilatzeko eskatzen deus Aldundiari, “gizarteratzeko alkarlaneko bizilekuak” ahalbidetzeko, hirugarren sektorearen parte-hartzeagaz. “Bizitoki kolektiboa ez eze, gizarteratze-prozesuak aurrera erodateko behar diran laguntzak be emongo litzatekez eta era horretan, 147/2010 Dekretuaren 6.2.b artikulua aplikatuz, bertan plaza daben persona guztiek diru-sarrerak bermatzeko errentea eskuratu ahal izan daien, baldin eta gizarte-zerbitzuak emoten dituan administrazio batez sinatutako arreta pertsonalizatuko plan bat garatzen badabe”, adierazoten da onartutako ekimenean.

Batzarretako taldeek adierazo dabenez, “beharrezkoa” da Diru Sarrerak Bermatzeko Legea barritzea, “egungo errealidadera egokitze”, baina hori gertatzen dan bitartean –Juan Oterminen berbetan Eusko Legebiltzarrean aurtengo bigarren seihilekorako dago aurreikusita izapidetzea–, Bizkaitik gizartetik baztertuta dagozan edo baztertuta egoteko arriskuan dagozan persona “guztiek” baliabide ekonomikoak izatea ahalbidetuko deus aldaketak sustatzea “positiboa” da, Administrazioetik laguntza-prozesuen barruan badagoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ekimena Elkarrekin Bizkaia taldeak ekarri dau hasiera batean, Foru Aldundiak desgaitasuna daukien personentzako egoitzetan edo gaixotasun mentala daukientzako zentroetan dituan zerbitzuen erabiltzaile “asko” diru-sarrerak bermatzeko errenta jasoteko *“gaiztasunak izaten ari diralako”*, eta hori *“bidebakokeria eta diskriminazioa”* dala adierazi dau Eneritz de Madariaga talde horretako bozeroaleak. Ostean, akordioagaz pozik agertu da, nahiz eta onartu *“persona batzuk ez dirala oraindino pozik egongo”* zuzenketa-eskearen eukiagaz.

ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZINOA ETXEBAKOTASUNAREN AURREAN

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak agerraldia egin dau, “etxebakotasunari” aurre egiteko udal eta foru zerbitzuen arteko koordinazio protokoloen barri emoteko. Laespadaren presentzia EH Bilduk eskatu eban, hilebete eskasean Bilboko kaleetan etxerik bako persona bi (“Piter eta Fatima”) hil zirala jakin ostean.

Laespadak etxebakotasunaren eta bere sailak gizartean baztertuta dagozan eta bizitzeko lekurik ez daukien personei erantzun *“integrala”* emoteko ezarri dituan politiken errepassoa egin dau; izan be, etxebizitza falta *“bere sailak gizartean baztertuta dagozan personak lan egiteko orduan erabilten dituan 51 adierazleetako bat baino ez da”*. Ganera, Aldundiarentzat etxerik ez daukien personak lau tipologiatan banatzen dira: “sabairik bako” personak, “etxerik ez daukien edo aldi baterako bizilekua daukien” personak, “etxebizitza ez-seguruan” bizi diran personak eta “etxebizitza desegokian” bizi diran personak.

Etxerik bako personei arreteta emoteko sistema Zorroaren ganeko Dekretuan dago garatuta, eta eskumen-maila desbardinak ezarten ditu. Laespadak gogora ekarri dauenez, Aldundia bizilekurik ezaz arduratzen da, personak gizarte-bazterketako aurretiazko balorazio bat egin dauenean, 51 adierazle horreek barne hartzen dituan diagnostiko bat aplikatuz. Horren harira, Laespadak esan dau *“Aldundiko zerbitzu sozialen erabiltzaile bakar bat be ez dala kalean bizi”*.

Laespadak zehaztu dauenez, “5 protokolo” desbardin dagoz euskal administrazioen artean. Azkenengoa eta barriena Bilboko erroldatzeen kudeaketea malgutzeagaz zerikusia dauena da, udaletako gizarte-zerbitzuen lanaren gorakadea arintzeko. Diputatuak azaldu dauenez, bere sailak *“bere gain hartu dau”* Aldundiaren mendeko zerbitzuak behar dituen personen erroldatzeen kudeaketea, horreen *“sarrerako atea”* erroldatzea dalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Izaskun Duque EH bilduko batzordekideak, egoitza-inklusionorako eta etxerik bako personen aldeko Bestebi plataformak egindako deia ekarri dau gogora; izan be, *“heriotza bat dagon bakotxean”, “beharrezkoa da gizarte-zerbitzuen zorroa benetan garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxebakotasuna Desagertuarazoteko Euskal Estrategia eguneratzea eta aktibetea, estrategia hori derrigorrezkoa dalako udalerrri guztientzat, eta, kalean hilten dan personarik egon ez daiten aurrekontua dauka. “Oso gai garrantzitsua” da, 2021ean amaitu zalako arazo horren aurreko egungo estrategia.*

HOTELETIK BATZARRETARA

Bileraren hasieran, Begoña Gil Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun batzordeburuak gogorarazo dau gaur 25 urte bete dirala gaurko batzordea egin dan egoitza administratiboa inaugurau zanetik. 1996ko maiatzaren 13an amaitu zan Excelsior hotelaren zaharbarritzea, Batzarretako egoitza bihurtzeko. Efemeride hori *“gogorarazotea ona da”,* izan be, denpora horretan *“jente asko igaro da bertatik”* –batzordekideak, beharginak, Aldundiko kideak–, eta *“lurralde hau garatzen eta bizkaitarren bizitza hobetzen lagundu dau”.*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INSTAN A INCLUIR EN LA RGI A TODAS LAS PERSONAS CON PLAZA DE ATENCIÓN PERSONALIZADA

- La Cámara vizcaína ha aprobado por unanimidad una enmienda para que “todas las personas con plaza que desarrollen un plan de atención personalizada suscrito con una Administración proveedora de servicios sociales, puedan acceder a la RGI”.
- La diputada Laespada comparece en comisión para hablar de la coordinación interinstitucional frente al “sinhogarismo”, el día en el que la Cámara vizcaína celebra los 25 años de puesta en marcha de la sede administrativa de las Juntas Generales de Bizkaia.

(Bilbao, a 13 de mayo de 2021). La comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado por unanimidad una enmienda a la totalidad de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, concebida para sustituir una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia, para que se inicie una reflexión sobre el acceso a la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) de todas aquellas personas que se encuentran residiendo en los espacios residenciales competencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

El texto acordado insta a la Diputación a buscar acuerdos con Gobierno Vasco para posibilitar “*alojamientos colaborativos para la inclusión social*”, contando con la participación del tercer sector. “*Mediante dicha figura se proporcionarían, además de alojamiento colectivo, apoyos necesarios para desarrollar procesos de inclusión, de forma que, en aplicación del artículo 6.2.b del Decreto 147/2010, todas las personas con plaza en el mismo que desarrollen un plan de atención personalizada suscrito con una Administración proveedora de servicios sociales puedan acceder a la RGI*”, se señala en la iniciativa aprobada.

Los grupos junteros han coincidido en señalar que es “*necesaria*” la renovación de la Ley de Garantía de Ingresos “*para acomodarla a la realidad actual*”, pero mientras esto ocurre, -su tramitación en el Parlamento vasco esta prevista para el segundo semestre de este año, según el socialista Juan Otermin-, es “*positivo*” fomentar desde Bizkaia cambios que permitan disponer de recursos económicos a “*todas*” las personas en exclusión social o en riesgo de estarlo y que estén pasando por procesos de acompañamiento desde la Administración.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Esta iniciativa ha sido traída inicialmente por el grupo Elkarrekin Bizkaia porque “*muchas*” personas usuarias de servicios competencia de la Diputación Foral en residencias para personas con discapacidad o centros para personas con enfermedad mental, “*están teniendo dificultades*” para poder acceder a la Renta de Garantía de Ingresos, lo que es “*una injusticia y una discriminación*” según ha señalado la portavoz de este grupo Eneritz de Madariaga, quien posteriormente se ha mostrado satisfecha con el acuerdo, pese a admitir que “*habrá personas que no se verán todavía satisfechas*” con el contenido de la enmienda.

COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL FRENTE AL SINHOGARISMO

Por otro lado, la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido en la misma sesión para informar de los protocolos de coordinación entre los servicios municipales y forales para hacer frente al “sinhogarismo”. La presencia de Laespada había sido solicitada por EH Bildu después de que se conociera el fallecimiento de dos personas sin hogar (“Piter y Fátima”) en las calles de Bilbao en apenas un mes.

Laespada ha hecho un repaso de lo que para ella es el sinhogarismo y las políticas que su departamento ha establecido para proporcionar una respuesta “*integral*” a las personas excluidas socialmente y que no tienen un techo donde vivir, ya que la falta de vivienda “*solo es uno de los 51 indicadores*” que maneja su departamento para trabajar con personas excluidas socialmente. Además, las personas sin hogar para la Diputación se encuadran en cuatro tipologías: las personas “sin techo”, las personas “sin vivienda o con alojamiento temporal”, las personas “en situación de vivienda insegura” y las personas “en situación de vivienda inadecuada”.

El sistema de atención a las personas sin hogar está desarrollada en el Decreto de Cartera que establece diferentes niveles competenciales. En este engranaje institucional Laespada ha recordado que la Diputación se ocupa de la falta de alojamiento cuando la persona ha pasado una valoración previa en exclusión social aplicándole un diagnóstico en el que se incluyen estos 51 indicadores. En este sentido, Laespada ha asegurado que “*ni un solo usuario de los servicios sociales de la Diputación vive en la calle*”.

Laespada ha precisado que existen hasta “5 protocolos” de coordinación diferentes entre las administraciones vascas. El más reciente y novedoso es el que tiene que ver con la flexibilización de la gestión de los empadronamientos en Bilbao para aliviar el aumento de trabajo de los servicios sociales municipales. La diputada ha señalado que su departamento “*ha asumido*” la gestión de aquellos empadronamientos de personas que requieren de servicios



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dependientes de la Diputación, ya que el empadronamiento es su *“puerta de entrada”*.

La apoderada de EH Bildu, Izaskun Duque, ha recordado el llamamiento de la plataforma por la inclusión residencial y a favor de las personas sin hogar Bestebi que, *“cada vez que hay un fallecimiento”, advierte de que “es necesario el desarrollo efectivo de la cartera de servicios sociales y la actualización y activación de la Estrategia Vasca de Erradicación del sinhogarismo en Euskadi, obligatoria para todos los municipios y con presupuesto para que no siga habiendo personas que mueran en la calle”*. Un cuestión *“muy importante”* porque en 2021 acaba la actual estrategia frente a este problema.

DE HOTEL A PARLAMENTO

Al inicio de la sesión, la presidenta de la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Begoña Gil, ha recordado que hoy se cumplen 25 años de la inauguración de la sede administrativa donde se ha desarrollado la comisión. Fue un 13 de mayo de 1996 cuando se terminó la restauración del antiguo Hotel Excelsior para convertirlo en sede parlamentaria, una efeméride que es *“bueno recordar”*, ya que en este tiempo *“ha pasado mucha gente”* - junteros y junteras, personal, miembros de la Diputación-, que *“han contribuido al desarrollo de este territorio y a mejorar la vida de vizcaínos y vizcaínas.”*